

## **Joxemartin Apalategi Begiristain: kultura irauteko borondatea eta berritzeko gaitasuna**

---

Joxemartin antropologoa eta nabigatzalea, argonauta, da. Esateko, beste lurralte batekoa da, eta azkenean, beste lurralte batera itzuliko da, nahiz eta “beste lurralte” hori, baserrian lan egiten dugunontzat, hiria izan

(J.W.M. Clinton. In: Apalategi Begiristain,  
*J. Antropologoa Hirian Bilbon*)<sup>1</sup>

Orri hauek aukera paregabea eskaintzen dute Joxemartin Apalategi Begiristainek ezagutzaren eta lan intelektualaren itsasoan –hori ere harroa, arriskutsua eta, sarritan, zakarra da– utzitako arrasto handiari erreparatzeko. Bere omenezko monografiko honetan jasotzen diren ekarpenak maitasun handiz eginak dira eta, gure “antropologo eta irakasleari” egindako omenaldia izateaz gain, haren lanaren sustraien sakonera ezagutzeko aukera emango digute. Haren prestakuntza zorrotz eta serioak, haren etengabeko ezinegonak eta haren betiko jakin-min gogoetaatsuak ibilbide eta ekarpen nabariak egitera eraman zuten pausoz pauso. Horiek oso baliagarri ditugu orain, lurralte txiki baina dinamiko honetan sortutako ikerketa antropologiko posmodernoaren zati bat ezagutzeko.

Euskal kulturarekiko kezkak taxututako ibilbidea izan da berea, pentsamenduarentzat eta ezagutzarentzat irekitako bidea. Landa- eta hiri-inguruneetan jasotako eta bizitasun intelektualez betetako zeharkako esperientziaren bidez, aldaketak eta iraupenak ulertzten saiatu zen. Joxemartin Apalategi Begiristainek herrialdean bertan jaso zuen lehen prestakuntza, eta ondoren kanpoan. Intelektual geldiezina eta ekintzailea zenez, gogoko zuen ikasleei irakastea eta haien lekuaren bertan jardutea. Bidaiaik egiten zituen, alderatu eta kontrastatu egiten zuen, bila ari zen etengabe, etnologia egiten zuen eta ikuspegí argi eta konpromeituaren parametroetan oinarrituta interpretatzen zuen. Eta horretarako, esaten genuen bezala, etxean ikas daitekeena ez zuen aski. Atzerrian ikasi zuen eta, ondoren, irteera, bidaia eta egonaldi ugari egin zituen gertuko eta urrutiko hiri eta

---

1. APALATEGI BEGIRISTAIN, *J. Antropologoa Hirian Bilbon*. Donostia: Kriselu, 1987; 180. or.

herrialdeetan. Behatzea eta bere egitea zuen helburu, gogoetarako osagai berriak ekarri nahian.

Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia Sailean presentzia leial eta iraunkorra izan zuen, begirada beti etorkizunean jarrita zeukala. Haren parte-hartze aktiboaren bidez, ezagutza lortzeko eta berraganatzeko kezka etengabea erakutsi zuen. Gure herriari buruz eta haren begien aurrean aldatzen eta bilakatzen ari den kulturaren eta gizartearen eraikuntzari buruz “gehiago jakiteko” gogoa eta nahia erakutsi zituen beti. Antropologia-Etnografia Sailari eta Eusko Ikaskuntzari berari, jakintzagunea den aldetik, begirada arretatsua, seriotasuna eta zorroztasuna emateko ahalegin baliotsua izan da haren parte-hartzea. Nahikari hori ikaskuntzaren, interesaren eta jakin-min intelektualaren bidez bete du, ikerkuntza, argitalpena eta pauso pauso lortutako lorpenen hedapena oinarri dituen “herriareniko maitasuna” ulertzeko era horren bidez.

Ikus dezakegunez, Joxemartin Apalategi Begiristain omentzeak gauza asko esan nahi ditu, gutako bakoitzak gure esperientzian horren gauza ezberdinak gordezen dituelako, guztiak, neurri handi batean, horrek gure artean izandako presentziaren emaitza direlarik. Baino gauza horiek guztiak –horietako batzuek orriotan izango dute isla– erabat hurbilak, atseginak, beroak eta hunkigarriak dira. Eta, une honetan, ikaskuntzarekiko ez ezik, haren ingurukoekiko ere sentsibilitate handia erakutsi zuen gizonaren alde gizatiar eta hurbilak merezi duen erantzun zintzoa izan nahi dute. Ildo horretan, hementxe geratu da horren aztarna, ideiak trukatuz, haren lanak irakurri edo haren ikastaro edo hitzaldiak entzunez berarekin une asko partekatzeko aukera izan dugun guztiion artean, kolore aberatseko eta ugariko sorta bateanislaturik. Horrek guztiorek bat egin du orain, liburu honetan eskainitako omenaldiaren zentzuarekin, izan ere bokazioa eta lanbidea erabiliz antropologieren eremuan elkar ulertzeko bideak ireki zituen “antropologo eta irakaslearenanako” aitorta, eskerrona eta miresprena adierazi nahi dugu.

Joxemartin Apalategi Begiristainentzat, eremu horren abiapuntu nagusietako bat Jose Miguel Barandiaranen ekarpenak dira, harengandik jaso baitzituen bere lehen erreferentzia etnologikoak. Harengandik jaso zituen euskal kulturarekiko jarraia eta interes bizia. Euskal kultura identitatearen inguruko etengabeko hausnarketa da beretzat, eta “oinarrizko ekoizleei” eta intelektual, politikari eta beste batzuei esker irauten du. Izan ere, horiek guztiak aldaketa soziokultural handiak gertatu diren uneetan kultur identitateaz hausnartzeko gai izan dira. Joxemartin Apalategi Begiristainen iritziz, Jose Miguel Barandiaran dugu etengabeko hausnarketa hori ongien erakutsi duen ikertzaileetako bat, bi zentzutan erakutsi ere: alde batetik, herri honetako biztanleengana hurbilduz eta haien gaitasun intelektuala aztertzuz, eta bestetik, bera ere herrialdeko semea zen aldetik. Jose Miguel Barandiaranenganganako hurbiltasun horrek bultzatuta, horrek bezala, buru-belarri jardun zuen ikerketa antropológikoan eta, metodología gisa, zorroztasuna, gertaerekiko hurbiltasuna eta lekuak bertan etengabe egotea ezaugarri dituen jarduera etnografikoa erabili zuen.

Hala, Barandiaranen lana eta Barandiaranengangan inspiraturik euskal kulturari buruz egindako ikerlanak ezagutzeagatik nabarmendu zen Joxemartin Apalategi Begiristain. Ildo teoriko eta metodologiko horretan ekarpenak egin dituztenen artean, besteak beste, Fermin Leizaola, Gerardo López de Guereña, Juan Garmendia Larrañaga eta Ignacio Barriola ditugu, baita Lauburu, *Ikuska* eta *Etniker*

taldeak ere. Horrez gain, Julio Caro Barojaren dizi-pulu eta zorduntzat du bere burua Joxemartin Apalategi Begiristainek, eta harreman estu eta hurbila izan zuen harekin. Hala ere, maisua eta ikaslea ez ziren guztiz bat etorri. Azken hori ohartu zen gabezia handi bat zegoela haren ulermen etnohistorikoan, euskal eremuan izandako kultur eta gizarte-trantsizioak ikertzean norbanakoaren eta gizartearen alorretako kostuak aintzat hartu ez zituelako<sup>2</sup>.

Hala, kulturaren gaineko ikuspegi antropologikoaren parametroak, neurri batean, Jose Miguel Barandiaran eta Julio Caro Baroja ikertzaileengandik bereganatu zituen, baina Joxemartin Apalategi Begiristainek joera sozialagoa eman zien, eta aldaketak “bai espazioan bai norbanakoaren eta gizartearen identitatean” era-gindako kostuaz eta prezioaz galdezen du. Etnohistoriak horri buruz egin beharreko balioespenaz eta judizioaz galdezen du. Eta, zentzu horretan, “aldaketa sozialari” dagokion atala ezin dela baztertu baleztatzen du. Kultura gizarteak eraikitzen du eta eraikitze horretan gizakiek parte hartzen dute, gizarte jakin batzuetako kideak diren aldetik. Horrela, Joxemartin Apalategi Begiristainek “norbanakoaren eta gizartearen fenomenoak” deritzona aztertzean ez du aldaketa alde batera uzten, eta hori ulertzeko gai ez den ikuspegi funtzionala gaintzen saiatzen da.

Euskal kultur aldaketa, beraz, Joxemartin Apalategi Begiristainen kezka bat da. Iragana oinarri hartuta egindako orainaren azalpena ez du aski izango. Julio Caro Barojaren ikuspegitik urrunago iritsi nahi du, horrek “bere analisietan inoiz ez baitu era kategorikoan kultur aldaketaren kontzeptua *in extenso* aintzat hartu, eta hori hutsune nabarmena da haren pentsamendu etnohistoriko handiarenean osotusunean”. Akats analitiko horrek bultzatuta, aldaketaren “nola” eta “zergatia” galdezen ditu, edo bestela esanda, “zer proiekturen indarrez gertatzen den” eta “zer kostu duen gizakiaren eta gizartearen aldetik eta kulturaren eta ingurumenaren aldetik”<sup>3</sup>. Julio Caro Barojaren ekarpenik garrantzitsuenetako bat gizarte-eragile bakoitzari emandako protagonismoa dela onartzen du. Hala ere, “norbanakoaren eta gizartearen fenomenoetan” dagoen elkarrekiko erlazioaren analisiaren hutsunea sumatzen du, bere ustez analisi hori era idealizatuan baino ez baita agertzen.

Testuinguru horretan kokatu behar ditugu Joxemartin Apalategi Begiristainen ekarpenak, esparru deskribatzaile eta kulturalista hutsik urrunago. Haren lanek eduki berriak ekarri zituzten, Jose Miguel Barandiaranen eta Julio Caro Barojaren lanen pisuak eta kategoriak eragindako euskal antropologijaren ibilbidea osatzeko. Bere lanbideko aukera kontzeptuala izango zuen pentsamendu horrekin, Euskal Herriko Unibertsitateko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Sailaren esparrua aurkitu zuen, eta bertan jardun zuen hasiera-hasieratik berarekin sartutako gainerako kideekin<sup>4</sup>. Kronologikoki, euskal antropologiako klasikoen ostean, berarekin lanean aritutako belaunaldi berriaren barruan kokatu zen Joxemartin Apalategi Begiristain. Belaunaldi horrek, hain zuzen, ikerketa antropologikoak herrialdeko

2. Adibide argigarria izan daiteke J. Caro Baroak “paganismotik kristautasunera igarotzeari” jarritako arreta. Iku APALATEGI BEGIRISTAIN, J. “Cultura vasca en la vida y obra del antropólogo Julio Caro Baroja”; 49. or. In: APALATEGI BEGIRISTAIN, J. (koord.) *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las Letras Españolas 1985*. Barcelona: Anthropos, 1989; 34-67. or.

3. APALATEGI BEGIRISTAIN, J. Op. cit.; 50. or.

4. Iku HOMOBONO, J. I. “Evolución y estado actual de la antropología social en el País Vasco”. *Anales de la Fundación Joaquín Costa*, 9. 1992; 147-170. or.

unibertsitate publiko nagusian txertatzen hasteko meritua izan zuen. Belaunaldi horren ostean hirugarrena iritsi zen, atzerrian prestatu eta Antropologiako doktoregradua lortu zuena. Belaunaldi horretako kideak ere unibertsitatean aritu ziren lanean eta Eusko Ikaskuntzaren laguntzaileak izan ziren. Haien artean honako hauek ditugu: Josechu Martínez Montoya (*École des Hautes Études en Sciences Sociales*, Paris, 1991), Juan Antonio Rubio-Ardanaz (*Université de Montréal*, 1996) eta Kepa Fernández de Larrinoa (*London School of Economics*, 2000)<sup>5</sup>.

Orain arte adierazi dugun jarreraren eta ildoaren azpian, guztiaz gain, kultura-ren ideia bat dago, eta hori, gure iritzian, bat dator hasieran aipagai izan dugun Joxemartin Apalategi Begiristainek utzitako aztarnarekin. Ideia hori Julio Caro Barojarri egindako omenaldiaren sarreran azaldu zen (1989an argitaratu zen, berak koordinatuta)<sup>6</sup>. Horren arabera, testuinguru espazio-temporal jakinetan egi-ten den sorkuntza eta asmakuntza da kultura. Testuinguru horietan, presentzia etnohistorikoak zerikusia du irauteko borondatearekin eta sustrai tradizionalak berritzeko gaitasunarekin. Baieztapen horrek bi gako garrantzitsu dakarzkigu: alde batetik, sortzeko eta asmatzeko aukera, hau da, errerealitatea une eta leku zehatzetan eratzeko aukera; eta bestetik, borondatea eta nahia, edozein giza talderen ageriko eta benetako gaitasunak. Kultura, sorkuntza eta asmakuntza den aldetik, esparru ekohistoriko eta sozialetan “bizitza-autoprodukzioa” den aldetik, gizakiok dugun aukera handia edo gaitasun nagusia da. Sorkuntza unibertsala erabiltzeko aukera bat, halakotzat harturik herri bakoitzak kulturaren eta gizartearen aldetik izateko eta irauteko orduan izaten duen adierazpen zehatza.

Ikuspegi horren arabera eta euskal antropologiaren bilakaera horretan, utzi digu bere aztarna Joxemartin Apalategik. Hain zuen, kultur sorkuntzarako eta asmakuntzarako aztarna, ikuspuntu irauteko borondatean eta berritzeko gaitasunean jarrita. Eta omenaldi hau pertsona, irakasle eta antropologo horri eskainitako aitortza da, haren ekarpenaren bidez “historia” egin duela eta oraindik ere egiten duela esan baikenezake. Litekeena da ñabardura eta xehetasun asko esan gabe utzi izana. Hala ere, berak antropologiaren historiaz ari zela esan zuenez, “inorenaren berri ematea oso zaila da”. Hala ere, “historia eginaren eta deginaren artean etengabe eztabaideatzeko” joko horretan, beharbada, interesgarriena une eta errerealitate bakoitzaren dinamismoan eta martxan bertan dago<sup>7</sup>. Hortxe sortzen da kulturaren eta gizartearen inguruko eztabaidea sortzaile horren mugari buruzko galdera. Eztabaidea horretan “pertsonak” hartzen du protagonismoa eta pertsonak egiten du historia.

Juan A. Rubio-Ardanaz

5. Haietako bakoitzak ildo berriak irekiko ditu euskal antropologiaren ikerkuntzan ordura arte landu gabeko parametro tematiko-kontzeptualak oinarri hartuta. Gaiak honako hauek dira, hurrenez hurren: kanda-inguruneko harremanak eta auzotasun-era berriak (Aramaio, Araba); aldaketa ekonomiko eta soziokulturala itsas eta arrantza-ingurunean (Santurtzi, Bizkaia); eta iñauteriaren eta landa-antzerkiaren performantzia (Euskal Pirinioa, Zuberoa).

6. Dónoan, “Julio Caro Baroja: Etnohistoria y cultura vasca”; 11. or. In: APALATEGI BEGIRISTAIN, J. (koord.). *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las Letras Españolas 1985*. Bartzelona: Anthropos, 1989; 7-11. or.

7. APALATEGI BEGIRISTAIN, J. *Ohitura*, 5. 1987; 170. or.

## **La cultura como voluntad de permanencia y capacidad de innovación en Joxemartin Apalategi Begiristain**

---

El antropólogo es navegante, argonauta, que en principio es de otra tierra y al final volverá a otra tierra incluso si esa “otra tierra” es, para nosotros trabajando en el campo, la ciudad

(J. W. M. Clintock. En: Apalategi Begiristain,  
*J. Antropologoa Hirian Bilbon*)<sup>1</sup>

Estas páginas son una buena ocasión para comprobar la importante estela que deja tras de sí Joxemartin Apalategi Begiristain en esta mar –también movida, arriesgada y a menudo brava– del conocimiento y del trabajo intelectual. Las aportaciones de este monográfico en su homenaje, todas ellas escritas con un cariño muy especial, además de ser homenaje, en buena parte nos permiten acercarnos al calado de las raíces del trabajo y labor de nuestro “antropólogo y profesor”. Su formación rigurosa y seria, su inquietud incessante y su constante reflexiva curiosidad, paso a paso le llevan a consolidar un itinerario y una aportación reseñables que nos sirven para conocer y acercarnos a una parte de la investigación antropológica postmoderna generada en este pequeño pero dinámico país.

Se trata de un caminar fraguado en la preocupación por la cultura vasca. Una traza que se convierte en surco abierto para el pensamiento y el conocimiento. Todo ello desde una experiencia transversal a través sobre todo del ámbito rural y urbano y de una experiencia repleta de vitalidad intelectual con la que intentar comprender cambios y permanencias. Joxemartin Apalategi Begiristain será hombre formado primero, dentro del país, y luego fuera; un intelectual inquieto y emprendedor, al que le gusta enseñar y acudir sobre el terreno con sus estudiantes, que viaja, que compara y contrasta, que busca incessantemente y que hace etnología e interpreta desde los parámetros de una visión despierta y comprometida. Y para ello como decíamos, no se contenta solamente con aquello que se puede aprender en casa. Estudia en el extranjero y

---

1. APALATEGI BEGIRISTAIN, J. *Antropologoa Hirian Bilbon*. Donostia: Kriselu, 1987; p. 180.

posteriormente realiza multitud de salidas, viajes y estancias en ciudades y países cercanos y lejanos, observando y tratando siempre de aprehender para aportar nuevos elementos a la reflexión.

Su presencia en la Sección de Antropología-Etnografía de la Sociedad de Estudios Vascos, es de una permanencia fiel, perseverante y siempre con la mirada puesta en el futuro. En ella resuena constantemente –por medio de su activa participación– una preocupación incansable, ante todo por conseguir y alcanzar conocimiento. Y en ella asimismo, translucen sin cesar unas ansias y deseos permanentes de “saber más” sobre nuestro país y en torno a la construcción de esta cultura y de esta sociedad que cambia y evoluciona ante sus ojos. Su participación es una atenta mirada y un valioso esfuerzo por dar, tanto a la Sección de Antropología-Etnografía, como a la misma Sociedad de Estudios Vascos, un verdadero carácter de seriedad y exigencia en tanto que lugar para el saber. Un deseo que se logra por el estudio, por el interés y la curiosidad intelectuales, por esta forma de entender “el amor al país” también a través de la investigación, la publicación y la difusión de los logros conseguidos paso a paso.

Como vemos, homenajear a Joxemartin Apalategi Begiristain seguramente significa muchas cosas, porque cada uno guarda en su experiencia tonalidades distintas, todas ellas en buena medida fruto de su presencia entre nosotros. Pero con seguridad, todas esas cosas, algunas de ellas plasmadas en estas páginas, son profundamente cercanas y amables, cálidas y emotivas. Y quieren ser en este momento, respuesta sincera ante ese lado humano y cercano de un hombre de gran sensibilidad no solo hacia el estudio, sino también hacia quienes le rodearon. En este sentido, su impronta queda ahí y se plasma en una gama de colores ricos y diversos entre las personas que hemos tenido la oportunidad de compartir muchos momentos con él, a veces contrastando ideas, otras leyéndole o asistiendo a sus cursos, a sus conferencias... Esa larga lista confluye ahora con el sentido de este homenaje que se convierte en el presente libro y que se traduce en reconocimiento, agradecimiento y consideración hacia este “antropólogo y profesor” que con tanto ahínco se preocupó vocacional y profesionalmente por abrir caminos de entendimiento y comprensión en el terreno antropológico.

Dicho terreno para Joxemartin Apalategi Begiristain, tenía uno de sus puntos de partida principales en las aportaciones de José Miguel Barandiaran de quien recibiría sus primeras referencias etnológicas. De él tomará una actitud y vivo interés por la cultura vasca, entendida como un replanteamiento constante de identidad, que permanece gracias por una parte a sus “productores de base” y por otra a personas como los intelectuales, los políticos y otros. A su entender todos ellos fueron capaces de replantear en momentos de profundo cambio sociocultural la identidad cultural. Joxemartin Apalategi Begiristain, reconoce en José Miguel Barandiaran, uno de los principales investigadores que mejor mostraría este continuo replanteamiento en una doble vertiente: el acercamiento a los propios habitantes de estas tierras y su capacidad intelectual, que además coincidía con su pertenencia al país. Su proximidad a José Miguel Barandiaran le lleva a emular la profunda dedicación al estudio antropológico y a la aplicación

de una metodología, plasmada en una práctica etnográfica, caracterizada por la minuciosidad, la cercanía a los acontecimientos y la presencia incesante sobre el terreno.

Joxemartin Apalategi Begiristain resaltará por su conocimiento, tanto de la obra barandianista, así como del conjunto de trabajos dedicados al estudio de la cultura vasca inspirados en aquél. En dicha línea teórica y metodológica encontramos las aportaciones realizadas, entre otros, por Fermín Leizaola, Gerardo López de Guereñu, Juan Garmendia Larrañaga e Ignacio Barriola, además de los grupos *Lauburu*, *Ikuska* y *Etniker*. Por otra parte, Joxemartin Apalategi Begiristain también se considerará discípulo y deudor de Julio Caro Baroja con quien mantuvo una estrecha cercanía personal. No obstante, maestro y alumno no van a coincidir plenamente. Este último, acabaría constatando que en su comprensión etnohistórica, latía una importante ausencia y desconsideración por los costes de orden individual y social, en los tránsitos culturales y sociales, objeto de estudio, acaecidos en el ámbito vasco<sup>2</sup>.

Los parámetros de su visión antropológica cultural, tomados en cierta medida bajo la influencia de investigadores como José Miguel Barandiaran y Julio Caro Baroja, toman no obstante, una vertiente más social por parte de Joxemartin Apalategi Begiristain, quien se pregunta por los costes y el precio que conlleva el cambio “tanto en el espacio como en la identidad individuo-social”. Este se interroga por la valoración y el juicio al respecto por parte de la etnohistoria. Y en este sentido afirma que no se puede olvidar el capítulo referido al “cambio social”. La cultura se construye socialmente y en ese ejercicio toman parte los individuos en tanto que pertenecientes a sociedades concretas. Es así como Joxemartin Apalategi Begiristain opta por no obviar el cambio a la hora de analizar lo que él denomina “fenómenos individuo-sociales”, tratando de superar una visión funcional incapaz de entrar en su comprensión.

El cambio cultural vasco, aparece entre las preocupaciones de Joxemartin Apalategi Begiristain, quien no se conforma con una explicación del presente en base al pasado. Intenta ir más allá de la visión de Julio Caro Baroja quien “nunca incorporó de modo categórico en sus análisis el concepto de cambio cultural *in extenso*, lo cual le produce en la totalidad de su grandioso pensamiento etnohistórico una falla muy considerable”. Esta deficiencia analítica le lleva a preguntarse por el “cómo” del cambio, por sus razones, o si se prefiere “a fuerza de qué proyectos” y de qué “coste individuo-social y culturo-ambiental” tiene lugar<sup>3</sup>. Admite, en el protagonismo de cada actor social, reclamado por Julio Caro Baroja, una de sus aportaciones más importantes. Sin embargo echa en falta el análisis de la interrelación existente en los “fenómenos individuo-sociales”, que a su juicio aparece más bien de manera idealizada.

---

2. Puede ser un ejemplo ilustrativo, la atención de J. Caro Baroja prestada al “paso del paganismos al cristianismo”, véase APALATEGI BEGIRISTAIN, J. “Cultura vasca en la vida y obra del antropólogo Julio Caro Baroja”; p. 49. En: APALATEGI BEGIRISTAIN, J. (coord.). *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las Letras Españolas 1985*. Barcelona: Anthropos, 1989; pp. 34-67.

3. APALATEGI BEGIRISTAIN, J. Op. cit.; p. 50.

Es en este contexto donde tenemos que situar las aportaciones de Joxemartin Apalategi Begiristain, más allá de un marco descriptivo y puramente culturalista. Sus trabajos aportan nuevos contenidos, tratando de completar la trayectoria de una antropología vasca que había permanecido fuertemente influenciada por el peso y la categoría de los trabajos de José Miguel Barandiaran y de Julio Caro Baroja. Con este pensamiento, profesionalmente, su opción conceptual, halla como marco el Departamento de Filosofía de los Valores y Antropología Social de la Universidad del País Vasco, donde colaborará desde su inicio con el resto de colegas que se integran en él<sup>4</sup>. Cronológicamente la figura de Joxemartin Apalategi Begiristain ocupa ese segundo eslabón entre los clásicos de la antropología vasca y una nueva generación con la que él colabora y que tendría el mérito de reinstaurar incipientemente, los estudios antropológicos en la principal universidad pública del país. A esta generación le sucede una tercera, formada en el extranjero donde obtiene el grado de doctor en Antropología, y que también trabajará a nivel académico universitario y colaborará con la Sociedad de Estudios Vascos. Entre ellos se encuentran Josetxu Martínez Montoya (*École des Hautes Études en Sciences Sociales*, París, 1991), Juan Antonio Rubio-Ardanaz (Université de Montréal, 1996) y Kepa Fernández de Larrinoa (London School of Economics, 2000)<sup>5</sup>.

En la posición y en la línea que hemos ido señalando, subyace ante todo una idea de cultura que a nuestro entender se identifica mejor con la estela a la que hacíamos mención al principio, dejada por Joxemartin Apalategi Begiristain. Esta queda reflejada en la introducción al homenaje a Julio Caro Baroja, publicado en 1989 bajo su coordinación<sup>6</sup>. Y en ella se alude a la cultura como creación e invención en contextos espaciotemporales concretos, donde la presencia etnohistórica estaría relacionada por una voluntad de permanencia y una capacidad para innovar las raíces tradicionales. Es una afirmación que nos sitúa ante dos claves importantes: por un lado la posibilidad para crear e inventar, para configurar la realidad en momentos y lugares precisos, y por otro la voluntad y el deseo como capacidades patentes y reales para cualquier grupo humano. La cultura como creación e invención, como “autoproducción de vida” en marcos ecohistóricos y sociales se muestra como la gran oportunidad, la capacidad por excelencia que tenemos las personas. Una oportunidad para ejercer una creatividad universal, entendida como expresión concreta de cada pueblo a la hora de ser y permanecer cultural y socialmente.

---

4. Véase HOMOBONO, J. I. “Evolución y estado actual de la antropología social en el País Vasco”. *Anales de la Fundación Joaquín Costa*, 9. 1992; pp. 147-170.

5. Cada uno de ellos, abrirá nuevas líneas desde parámetros temático-conceptuales, no trabajados hasta la fecha en el campo de la investigación antropológica vasca. Las temáticas versarán respectivamente sobre: las relaciones y nuevas formas de vecindad en el medio rural (Aramaio, Araba); el cambio económico y sociocultural en el ámbito marítimo-pesquero (Santurtzi, Bizkaia); y la performance del carnaval y el teatro rural (Pirineo vasco, Zuberoa).

6. Dónoan, “Julio Caro Baroja: Etnohistoria y cultura vasca”; p. 11. En: APALATEGI BEGIRISTAIN, J. (coord.). *Julio Caro Baroja, Premio Nacional de las Letras Españolas 1985*. Barcelona: Anthropos, 1989; pp. 7-11.

Bajo esta perspectiva y en este devenir de la antropología vasca, Joxemartin Apalategi deja su impronta. Impronta para la creación e invención cultural, con el punto de mira puesto en la voluntad de permanencia y en la capacidad de innovación. Y este homenaje en buena medida quiere ser un reconocimiento hacia la persona, el profesor y el antropólogo que con su aportación, podríamos afirmar, ha hecho y sigue haciendo “historia”. Es posible que dejemos en el tintero muchos matices y puntualizaciones, pero como él mismo llegó a reconocer refiriéndose a la historia de la antropología, “dar cuentas de lo ajeno entraña muchas dificultades”. No obstante, lo interesante quizá esté en el dinamismo y en la propia marcha de cada momento y realidad en ese juego en el que “la historia se debate, sin cesar entre el hecho y el des-hecho”<sup>7</sup>. Es ahí donde surge la pregunta por los límites de este debate creativo –de cultura y sociedad– en el que el protagonismo pasa por la “persona” y donde la historia es hecha precisamente por ella.

Juan A. Rubio-Ardanaz

---

7. APALATEGI BEGIRISTAIN, J. *Ohitura*, 5. 1987; p. 170.